

ZENBAT DIRU

GASTATZEN DUGU ARROPA EROSTEN:



IKASLEAK: EHARI ACHALANDABASO, CLARA SALINAS ETA GABRIELA GIBSS

TUTOREA: BLANCA GARCIA

IKASTETXEA: AIXERROTA BHI

MAILA: DBH 2

IKASTURTEA: 2023-24

AURKIBIDEA:

Sarrera eta helburuak:.....	1
Material eta metodoak:.....	1
Datuen analisisa:.....	2
Emaitzak eta ondorioak:.....	12
Hobekuntzak:	12
Eranskina: Inkesta.....	13

SARRERA ETA HELBURUAK:

Arropan jendeak gastatzen duen diru kopuruari buruzko proiektu bat egin dugu. Gure hipotesia jendeak diru asko gastatzen duela da. Proiektu hau astean, hilabetean eta urtean zehar zenbat diru gastatzen duen jakiteko egin dugu. Era berean ondorengo puntuak ere argitu nahi genituen:

- Ea jendeak arropa partekatzen duen,
- Oinordetzan hartzen duen,
- Gurasoekin partekatzen duen
- eta abar

MATERIAL ETA METODOAK:

Lehenik, galdetegi bat egin genuen eta DBH2 osoari bidali genion. Egun batzuk pasa eta gero 24 erantzun genituen jada, baina bat edo bi erantzun ezabatu genituen egiazkoak ez zirelako, hau da, txantxetan eginda zeuden. Ondoren, galdetegia itxi genuen, erantzun gehiago ez edukitzeko. Geroago, datuak Excel batera pasatu genituen, eta hor analisía egin genuen. Grafikoak eta diagramak egin genituen. Horri ezker, gure hipotesiak baieztatu edo ezeztatu genituen.

HIPOTESIA: gure hipotesia zen, jendea diru asko gastatuko zuela arropan.


DATUEN ANALISIA:

Lehenengo galderekin ea lagina adierazgarria zen jakin nahi genuen.

LEHENENGO GALDERA: zenbat urte dituzu ?

Grafiko eta taula hauetan gure galdetegia egin duten nesken eta mutilen urteak adierazten dira.

Zenbat urte dituzu?




ADINA	FI	HI
12	5	20,83%
13	19	79,17%
TOTALA	24	100%

Ikusi dugu gure galdetegia erantzun duten %82,61k hamahiru urte dituztela eta beste %21,74k hamabi urte dituztela.

BIGARREN GALDERA: generoa

Taula eta grafiko hauetan generoa ikusten eta adierazten da.

FI




GENEROA	FI	HI
Neska	16	67%
Mutila	8	35%
TOTALA:	24	100%

Grafikoan ikusi ahal da erantzun diguten gehienak neskak direla eta gutxiengoak mutilak. Neskak % 67 dira eta mutilak %35. Hau gertatu denez ez da oso adierazgarria izango generoari dagokionez. Esan dezakegu nesken artean dela batez ere adierazgarria.

HIRUGARREN GALDERA: zenbatero erosten duzu arropa?

Taula eta grafiko honetan jendea zenbatero joaten den arropa erostera ikusten da.

Zenbatero erosten duzu arropa?




AUKERAK	FI	HI
Egunero	1	4%
Hilabetero	17	74%
Urtero	4	17%
Inoiz ez	1	4%
TOTALA	23	100%

Hemen ikusi ahal dugu jende gehienak hilabetean behin joaten dela erosketak egitera. Pertsona bat (%4) egunero joaten da arropa erostera. Hamazazpi pertsona (% 74), (moda) hilabetero joaten dira arropa erostera. Lau pertsona (%17a) urtero joaten dira. Azkenik pertsona bat (%4) ez da inoiz joaten.

LAUGARREN GALDERA: nork erosten dizu arropa?

Grafiko eta taula honetan ikusi ahal da nork erosten dien arropa.

Nork erosten dizu arropa?




AUKERAK	Fi	Hi
Aitak	3	13%
Amak	14	61%
Beste Batek	2	9%
Zuk	4	17%
TOTALA:	23	100%

Hemen ikusi ahal da pertsona gehienei haien amak erosten diela arropa. % 61-i erosten dio amak arropa, hau da erdia baino gehiago. %17k haien arropa erosten dute. %13ri aitak erosten dio arropa, eta % 9ri beste norbaitek erosten dio arropa.

BOSTGARREN GALDERA: zenbat diru gastatzen dituzu astean?

Grafiko eta taula honetan ikusi ahal da zenbat diru gastatzen duen jendeak arropa erosten aste batean. Batz bestea 19€-ko gastua dute.

Zenbat diru gastatzen dituzu astean?




AUKERAK	Fi	Hi	Hi * Ti
10	11	52%	110 €
15	2	10%	30 €
20	4	19%	80 €
30	1	5%	30 €
40	1	5%	40 €
50	2	10%	100 €
TOTALA:	21	100%	390 €
Batezbestekoa	19 €		

Hemen ikusi dugunez jendeak ez du diru asko gastatzen. % 52-k (11 pertsonak) 10 € gastatzen ditu astean (hauek gehiengoak dira). %19-k (4 pertsonak) 20 € gastatzen dituzte astean. %10-ek (2 pertsonak) 50€ gastatzen dituzte astean. %10-ek (2 pertsonak) 15 € gastatzen dituzte astean. %5-ek (pertsona bakar batek) 30 € gastatzen dituzte eta beste %5-ek (pertsona bakar batek) 40€ gastatzen dituzte.

SEIGARREN GALDERA: zenbat gastatzen duzu hilabetean?

Grafiko eta taula honetan ikusi ahal da zenbat gastatzen duen jendeak. Grafiko honen batezbestekoa 40,45€ da.

Zenbat diru gastatzen duzu hilabetean?




AUKERAK	Fi	Hi	HI*FI
20	3	14%	60
25	2	9%	50
30	2	9%	60
35	0	0%	0
40	5	23%	200
45	1	5%	45
50	4	18%	200
55	5	23%	275
TOTALA:	22	100%	890
Batezbestekoa:	40,45		

Hemen ikusi ahal dugunez jendeak diru gehiago gastatzen du. 3 pertsonak (hau da % 14k) 20€ gastatzen dituzte. 2 pertsonak (hau da % 9k) 25€ gastatzen dituzte. 2 pertsonak (hau da % 9k) 30€ gastatzen dituzte. 5 pertsonak (hau da % 23k) 40€ gastatzen dituzte . 1 pertsonak (hau da % 5k) 45€ gastatzen dituzte. 4 pertsonak (hau da % 18k) 50€ gastatzen dituzte. 5 pertsonak (hau da % 23k) 55 gastatzen dituzte.

ZAZPIGARREN GALDERA: zenbat gastatzen duzu urtean?

Grafiko eta taula honetan ikusi ahal da zenbat gastatzen duen jendeak (urtero). Grafiko honen batezbestekoa 240 € da.

Zenbat urtero?




AUKERAK	Fi	Hi	KM	xi*fi
100-130	4	18%	80	320
130-160	4	18%	145	580
160-190	2	9%	180	360
190-220	3	14%	215	645
220-250	1	5%	245	245
250-280	3	14%	375	1125
280*	5	23%	400	2000
TOTALA:	22	100%		5275
Batezbestekoa	240			

Hemen ikusi ahal dugunez jendea diru gehiago gastatzen du (astean baino). 4 pertsonak (hau da % 18k) 100-130 € gastatzen dituzte. 4 pertsonak (hau da % 18 k) 130-160 € gastatzen dituzte. 2 pertsonak (hau da % 9k) 160-190 € gastatzen dituzte. 3 pertsonak (hau da % 14 k) 190-220 € gastatzen dituzte. Pertsona 1 (hau da % 5k) 220-250 € gastatzen dituzte . 3 pertsonak (hau da % 14k) 250-280€ gastatzen dituzte. 5 pertsonak (hau da % 23 k) 280+€ gastatzen dituzte.

ZORTZIGARREN GALDERA: ze dendetan erosten duzu?

Hemen ikusi ahal dugu ze dendetan erosten duen jendeak. Jendeak gehien erosten duen dendan Zara da.




AUKERAK	FI	HI
Zara	18	17%
Pull and bear	14	13%
Nike	14	13%
stradivarius	13	12%
Mango	8	8%
Shein	8	8%
Primark	8	8%
Lesfties	3	3%
Brownie	2	2%
Klasiks	2	2%
Merkadilloa	2	2%
Subdued	1	1%
Noon	1	1%
Calcedonia	1	1%
Scalpers	1	1%
Beste bat	1	1%
Total	106	100%

Hemen ikusi ahal dugunez jendeak dendak askotan erosten du. Jendea gehien erosten duen dendan Zara da. Hau da, 18 pertsonak (%18k), moda.

BEDERATZIGARREN GALDERA: Nolako dendetan erosten duzu?

Grafiko eta taula honetan ikusi ahal dugu nolako dendetan erosten duten pertsonak (denda garestietan denda merkeetan edo bietan).

Nolako dendetan erosten dituzu?




AUKERAK	Fi	Hi
Bietan	18	78%
Gareziak	1	4%
Merkeetan	4	17%
Totala	23	

Hemen ikusi ahal dugu 18 pertsonak (hau da % 78k) bietan erosten dutela. 18 pertsonak (hau da % 72k) bietan erosten duela. Pertsona bakarra (hau da %4k) denda garestietan erosten du. Eta 4 pertsonak (hau da % 17k) denda merkeetan erosten dute. Jendea gehienetan erosten dute bietan.

HAMARGARREN GALDERA:Zure familiaren edo lagunen arropa heredatzen al duzu?

Hemen ikusi ahal dugu ea jendea haien gurasoekin edo lagunekin arropa partekatzen duen. Jende gehienak baietz esan du.

Heredatzen duzu?



k


AUKERAK	Fi	Hi
Ez	6	26%
Bai	17	74%
TOTALA:	23	100%

Ikusi dugu jende gehienak haien gurasoekin partekatzen duela arropa. Hobeto esanda 17 pertsonak (hau da % 74k). Eta jende gutxienak esan du ez duela arropa partekatzen 6 pertsona(% 26k)

HAMARGARREN GALDERA: arropa partekatzen duzu ?

Hemen ikusi ahal dugu noizero partekatzen duten arropa erantzun duten pertsonak. Jende gehienak esan digu batzuetan partekatzen duela.

Partekatzen duzu?




AUKERAK	Fi	Hi
Batzuetan	13	57%
Beti	2	9%
Inoiz ez	8	35%
TOTALA:	23	100%

13 pertsonak (%57k) esan digute batzuetan partekatzen duela. 8 pertsonak (%35k) esan digute ez dutela inoiz ez partekatzen. Eta 2 pertsonak (%9k) esan digute beti partekatzen dutela.

HAMAIKAGARREN GALDERA: arropa ematen duzu?

Grafiko honetan ikusi ahal dugu jendea ea arropa donatzen duen. Jende gehienak baietz esan digu.

Donatzen duzu?




AUKERAK	Fi	Hi
Ez	8	35%
Bai	15	65%
TOTALA:	23	100%

15 pertsonak (% 65k) ematen duela esan diote eta 8 pertsonak (% 35k) ezetz esan dute.

HAMABIGARREN GALDERA: aita eta amarekin banatzen duzu arropa?

Grafiko honetan ikusi ahal dugu ea jendea bere aita/amarekin partekatzen duen arropa. Jende gehienak esan du soilik batzuetan partekatzen duela.

Aitarekin eta amarekin banatzen duzu?




OPTIONS	Fi	Hi
Inoiz ez	8	35%
Beti	2	9%
Batzuetan	13	57%
TOTALA:	23	100%

13 pertsonak (hau da, 57%-k) esan du batzuetan arropa partekatzen duela bere gurasoekin, 8 pertsonak (hau da, 35%-k) esan du ez duela inoiz ez partekatzen arropa bere gurasoekin eta 2 pertsonak (hau da, 9%-k) esan du beti partekatzen duela arropa gurasoekin.

HAMAHIRUGARREN GALDERA: bigarren eskuko arropa erosten duzu?

Beste grafiko honetan galdetzen dugu ea jendea bigarren eskuko arropa erosten duen, eta gehienek esaten dute baietz.

2. eskuko arropa erosten duzu?



OPTIONS	Fi	Hi
Bai	20	91%
Ez	2	9,50%
TOTALA:	22	100%

20 pertsonak (hau da, 91%-k) esan du bigarren eskuko arropa bai erosten duela eta 2 pertsonak (hau da, 9,50%-k) esan du ez duela bigarren eskuko arropa erosten.

EMAITZAK ETA ONDORIOAK:

Gure laginaren gehiengoaren adina 13 urte dira eta gehiengoak neskak dira, hau da, DBH2-ko neskengandik jaso ditugu erantzun gehienak. Honek esan nahi du aterako ditugun ondorioak adierazgarriagoak izango direla adin tarte eta genero hauetako pertsonentzat besteentzat baino.

- Gazteen gehiengoak (**73,9%**) hilabetero joaten dira arropa erostera. Atera dugun beste ondorioa hurrengoa da: Gehienei amak erosten die arropa (**60,9%**).
- Gazte gehienek 400€ baino gehiago gastatzen dute urtero (**23%k**) eta gazte gehienek 55€ baino gehiago gastatzen dute hilabetero (**23%k**). Astero 10€ baino gehiago gastatzen dute (**52%k**).
- Gazte guztiek Zaran erosten dute (**17%k**). Beste gazteen kopuru altu batek Pull and Bear, Nike, Stradivarius, Mango, Shein eta Primarken erosten dute. Gutxi Brownie, Klasiks, Merkadilloa, Subdued, Noon, Calcedonia, Scalpers y eta beste dendetan erosten dute (**5%k**).
- Gehienek (**%78k**) denda merke zein garestietan erosten dute.
- Gehienek (**%74k**) arropa jasotzen dute senideengandik.
- Gehienek (**%65k**) arropa partekatzen dute.
- Gehienek (**%65k**) arropa ematen dute.
- Gehienek (**%90k**) bigarren eskuko arropa erosten dute.

Hau guztia ikusita, esan dezakegu gure laginak osatzen duten ikasleek (DBH2koek eta batez ere neskek) nahikotxo gastatzen dutela arropan. Haien erosteko ohitura da batez ere hilero arropa erostera joatea. Dena den, erabilitako arropa ere erabiltzen dute, hala nola bigarren eskuko arropa edota senide batengandik pasatutakoa. Dena den, hipotesia baieztatu ahal izateko erantzun gehiago beharko genituzke, erabilitako laginaren erantzunak oso eskasak izan baitira.

HOBEKUNTZAK:

Nahi genuena lortu dugu, hau da, gure hipotesia egiaztatu dugu.

Baina, arazo txiki bat eduki dugu, eta arazo hau da egon direla pertsona batzuk ez dutela serio hartu galdetegia. Baina, hala ere, bere emaitzak ezabatu ondoren, proiektuarekin segi egin dugu.

ERANSKINA: INKESTA

1.Zenbat urte dituzu?

- 10
- 11
- 12
- 13
- 14
- 15
- 16
- 17
- 18
- 19
- 20

2.Zein da zure generoa?

- Neska
- Mutila
- Ez binarioa

3.Zenbatero joaten zara arropa erostera?

- Egunero
- Astero
- Hilabetero
- Urtero
- Inoiz ez

4.Nork erosten dizu arropa?

- Zu
- Ama
- Aita
- Beste bat

5.Zenbat euro gastatzen dituzu astero?

- 10
- 15
- 20
- 25
- 30

- 35
- 40
- 45
- 50
- 50+

6.Zenbat euro gastatzen dituzu hilabetean?

- 10
- 15
- 20
- 25
- 30
- 35
- 40
- 45
- 50
- 50+

7.Zenbat euro gastatzen dituzu urtero?

- 0-30
- 30-60
- 60-100
- 100-130
- 130-160
- 160-200
- 200-230
- 230-260
- 260-300
- 300-330
- 330-360
- 360-400
- 400+

8.Ze dendetan erosten duzu normalean?

- Mango
- Stradivarius
- Zara
- Pull & Bear
- Subdued
- Noon

- Shein
- Brownie
- H&M
- Klasiks
- Adidas
- Nike
- Jordan
- Calcedonia
- Scalpers
- Primark
- Lefties
- Merkadilloa
- Beste bat

9. Nolako dendetan erosten duzu arropa? Denda garestietan ala denda merkeetan?

- Garestietan
- Merkeetan
- Bietan

10. Zure familiaren edo lagunaren arropa heredatzen duzu?

- Bai
- Ez

11. Zure lagunekin arropa partekatzen duzu?

- Beti
- Batzuetan
- Inoiz ez

12. Normalean arropa donatzen duzu?

- Bai
- Ez

13. Zure aita/amarekin partekatzen duzu arropa?

- Beti
- Batzuetan
- Inoiz ez

14. Bigarren eskuko arropa erosten duzu?

-Bai

-Ez

15. Baietz esan baduzu, zergatik?

.....